Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

**Consulta pública previa a la elaboración del proyecto de Orden Foral por el que se regula el acceso y admisión en los grados del Sistema de Formación Profesional en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra.**

El artículo 133.1 de la Ley Foral 11/2019, de 11 de marzo, de la Administración de la Comunidad Foral de Navarra y del Sector Público Institucional Foral dispone que con carácter previo a la elaboración un anteproyecto de ley o proyecto de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del Portal del Gobierno Abierto de Navarra en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura orden foral por la que se regula el acceso y admisión en los grados del sistema de formación profesional y en los ciclos formativos en la Comunidad Foral de Navarra, acerca de:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
c) Los objetivos de la norma.
d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Por su parte, la Ley Foral 5/2018, de 17 de mayo, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno Foral, establece en su artículo 21 la obligación por parte de las Administraciones Públicas de Navarra de publicar las consultas públicas planteadas con carácter previo a la

**Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako sistemako graduetan sartzea eta onartzea arautzen duen Foru Aginduaren proiektua egin aldez aurreko kontsulta publikoa**

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikuluak xedatzen duenez, lege-aurreproiektu bat edo erregelamendu-proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten Nafarroako Foru Komunitatean lanbide-heziketako sistemako graduetan eta heziketa-zikloetan sartzea eta onartzea arautzen duen etorkizuneko foru aginduak uki ditzakeen subjektuek eta erakunde adierazgarrienek gai hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
c) Arauaren helburuak.
d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.

Bestalde, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Foru Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek nahitaez argitaratu behar dituzte foru-legearen aurreproiektuak eta erregelamendu-

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

elaboración de anteproyectos de ley foral y proyectos reglamentarios. En cumplimiento de las citadas previsiones, las personas, organizaciones y asociaciones que así lo consideren, pueden hacer llegar sus aportaciones sobre la propuesta normativa proyectada. La fecha límite de presentación es de 15 días hábiles a partir del día siguiente al de la publicación.

**A) Problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa**.

La Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, de ordenación e integración de la formación profesional ha diseñado un nuevo modelo de formación profesional, el Sistema integrado de Formación Profesional.

Mediante el Real Decreto 659/2023, de 18 de julio, que desarrolla la ordenación del Sistema de Formación Profesional, se han desarrollado los requisitos de acceso establecidos en la Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, en los grados del sistema de Formación Profesional y se han dispuesto criterios de admisión que deben ser tenidos en consideración en la admisión en los grados D que se corresponden con ciclos formativos de grado medio y superior, así como situaciones que pueden ser tenidas en consideración en la admisión de los grados D y E del sistema de formación profesional.

Con la orden foral se pretende regular el acceso y admisión en los grados del Sistema de Formación Profesional y en los ciclos formativos en la Comunidad Foral de Navarra, al objeto de adecuar

proiektuak egitea. Aurreikuspen horiek betez, hala uste duten pertsonek, erakundeek eta elkarteek beren ekarpenak helaraz diezazkiekete proiektatutako arau-proposamenari. Aurkezteko azken eguna 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

**A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

Lanbide Heziketa antolatu eta integratzeari buruzko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoak lanbide-heziketako eredu berri bat diseinatu du: Lanbide Heziketako Sistema Integratua.

Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren bidez, martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organikoan ezarritako sarbide-baldintzak garatu dira Lanbide Heziketako sistemako graduetan, eta onarpen-irizpideak ezarri dira. Irizpide horiek kontuan hartu behar dira erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloei dagozkien D mailetako onarpenean, bai eta lanbide-heziketako sistemako D eta E graduak onartzean kontuan har daitezkeen egoeretan ere.

Foru aginduaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako Sistemako graduetan eta heziketa-zikloetan sartzeko eta onartzeko modua arautu nahi da, estatuko oinarrizko

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

reglamentariamente el proceso de admisión a lo establecido en la normativa básica estatal.

**B) Necesidad y oportunidad de su aprobación**.

La necesidad viene dada por el desarrollo reglamentario que se precisa en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra para la efectiva aplicación de las disposiciones en los requisitos de acceso y criterios de admisión establecidas en la Ley Orgánica 2/2022, de 31 de marzo, y en el Real Decreto 659/2023, de 18 de julio.

El proyecto de orden foral es necesario y oportuno, resultando imprescindible para la implantación de los nuevos requisitos y criterios de acceso en las ofertas formativas de los ciclos formativos y de los grados del Sistema de Formación Profesional.

**C) Objetivos de la norma**.

Proceder a la regulación del acceso y admisión en las ofertas de ciclos formativos y de grados del Sistema de Formación Profesional en el ámbito de la Comunidad Foral de Navarra. En concreto, se contempla regular el acceso y admisión en los diferentes grados del Sistema de Formación Profesional, grados A, B, C, D y E y en los ciclos formativos de artes plásticas y diseño.

**D) Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias**.

No existe alternativa, toda vez que la normativa básica referida al acceso y criterios de admisión

araudian ezarritakora onartzeko prozesua erregelamendu bidez.

**B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.**

Premia hori sortzen da Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan martxoaren 31ko 2/2022 Lege Organikoan eta uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan ezarritako sarbide-betekizunetan eta onarpen-irizpideetan xedapenak eraginkortasunez aplikatzeko behar den erregelamendu-garapenean.

Foru-aginduaren proiektua beharrezkoa eta egokia da, eta ezinbestekoa da Lanbide Heziketako Sistemako heziketa-zikloen eta graduen prestakuntza-eskaintzetan sartzeko baldintza eta irizpide berriak ezartzeko.

**C) Arauaren helburuak.**

Nafarroako Foru Komunitatean Lanbide Heziketako Sistemako heziketa-zikloen eta graduen eskaintzetarako sarbidea eta onarpena arautzea. Zehazki, Lanbide Heziketako Sistemako A, B, C, D eta E graduetako eta arte plastikoetako eta diseinuko heziketa-zikloetako sarbidea eta onarpena arautzea aurreikusten da.

**D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak.**

Ez dago alternatibarik, sarbideari eta onarpen-irizpideei buruzko oinarrizko araudia martxoaren 31ko

Gobierno de Navarra
Departamento de Educación
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

**Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional**
**Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzua**
Santo Domingo 8 - 31001 Pamplona/Iruña
sfpeduca@navarra.es
Tel. 848 42 65 91

contenida en la Ley Orgánica 3/2022, de 31 de marzo, y en el Real Decreto 659/2023, de 18 de julio, debe resultar de aplicación en el curso 2024-2025.

3/2022 Lege Organikoan eta uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuan jasota dagoenez, 2024-2025 ikasturtean aplikatu behar da.

Pamplona, 3 de noviembre de 2023

Iruñea, 2023ko azaroaren 3

La Directora del Servicio de Planificación e Integración de la Formación Profesional.

Lanbide Heziketaren Plangintza eta Integraziorako Zerbitzuko Zuzendaria.

*(La firma consta en el original)*

Esther Monterrubio Ariznabarreta